

2012IAKU0003

52. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2012ko martxoaren 22an, arratsaldeko zazpietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ez ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuen deitu direlarik, Udalatzako kide hauek bertaratu dira:

LEHENDAKARIA: IÑAKI AGIRREZABALAGA ALKORTA JN.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

AZIS ALBERDI ZALDUNBIDE JN.
ARRITOKIETA GONZALEZ ELOSUA AND.
ENEKO AGIRRE MAIORA JN.
MAITANE AGIRRE ARRIETA AND.
IÑAKI OSTOLAZA ESNAL JN.
MONTSE ARANA PEREZ AND.
JUAN CARLOS CENDOYA AIZPURUA JN.
ANA ARRANZ IRIGOYEN AND.
ISIDRO FERNANDEZ ECHAVE JN.
EMILIANO CABANAS GONZALEZ JN.
AITOR LEIZA ALBERDI JN

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK: EDURNE EGAÑA MANTEROLA AND.

IDAZKARIA: GORKA URGOITI AGIRRE

EGUNEKO AZTERGAIAK

1.- KIROL PATRONATUARI DAGOKIONEZ, UDALBATZAKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA.

Alkatea: Kirol Patronatua dagoeneko eratuta dagoela gogoratu du, baina oraindik udalbatzari dagozkion ordezkariak izendatzeke daudela. Hori horrela izanik, Bilduren aldetik, argitu du, Iñaki Ostolaza jn. eta Eneko Agirre jn. izango direla ordezkatuko dutenak.

Montse Arana (EAJ-PNV): Kirol batzordeko estatutuak 2009an urrian onartu zirelarik, harrezkero ez dutela informaziorik izan; aurrekontuak onartu direla bakarrik, bertan aurreikusiz maiatzetik aurrera kirol patronatua martxan jarriko dela. Nolanahi ere, euren iritzian zuzendaritza batzordea eratu gabe dagoela kontuan hartuta, eta kirol batzordean gaia ez dela tratatu, zuzendaritza batzorde osoa eratzea proposatu du, lehendakaria eta kide guztien izenekin eta, orduan, euren ordezkariak izendatuko dituztela. Ez dute ulertzen zergatik lehenbizi zinegotzien izenak eman behar diren eta gainontzekoak gero.

Alkatea: bozeramaileen batzordean argitu zuen bezala, osoko bilkurari udaletxeko ordezkariak izendatzea dagokiola esan du, eta kirol elkarteei, berri, euren ordezkariak izendatzea. Horregatik, ba, osoko bilkurara ekarri da gai hau. Bestetik, gogoratu du, 2009 urtetik estatutuak onartuta egon badira ere, funtzionamenduan ez da jarri aurrekontuak ez zirelako onartu handik hona, urte horietan zehar, alegia.

Montse Arana (EAJ-PNV): Kirol Patronatua oraindik ez bada eratu, zuzendaritza batzordea osatzen duten kide guztiei izendapenak egiteko eskaria luzatu beharko zaiela adierazi du eta euren iritziz, kirol batzordeak egin beharko luke. Hori egin ez denez gero, ez dituzte euren ordezkariak izendatuko.

Emiliano Cabañas (PSE-PSOE): 2009 urtetik ez bada ezer egin ez du aparteko arrazoirik ikusten orain presaka ibiltzeko. Bat dator EAJ-PNV-rekin agian Kirol Batzordeak abiarazi beharko lukeela prozesua; nolanahi ere, ez dio garrantzi handirik ematen izendapenak orain edo geroago egiteko.

Alkatea: izendatuen izenak zerrendatu ditu, EAJ-PNV-ren ordezkariak izan ezik:

Emiliano Cabañas

Aitor Leiza,

Eneko Agirre

Iñaki Ostolaza (kirol batzordeburua)

2.- IRIZPENA: URAREN ZIKLOAREN KUDEAKETARI BURUZKO UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA.

2012KO MARTXOAREN 19KO HIRIGINTZA BATZORDEAREN IRIZPENA, URAREN ZIKLOAREN KUDEAKETARI BURUZKO UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA ONARTZEKO.

AURREKARIAK

1.- Zumaiako Udalbatzak 2000ko azaroak 30ean egindako ohizko bileran hasierako izaeraz onartu zuen Uraren Ziklo Osoaren Kudeaketa aurautzen duen Ordenantzaz. Horren aurrean inolako murtzilo edo iradokizunik aurkeztu ez zenez, behin betiko onartutzat geratu zen, eta hori jendeurrean jakitera ematen zen apirilaren 2ko 7/85 legeko 70.2 Artikuluan xedatutakoaren indarrez, behin betiko testua GAO 2001ko Martxoaren 1an argitaratu zelarik.

2.- Udal Arkitektoak otsailaren 5eko eta Martxoko 12ko batzordeetan jakinarazi zuenaren ildotik, ordenantzaren aplikazioak, Gipuzkoako Urak enpresaren esanetan kudeaketa arazo dakartzza, eta erreklamazioa asko izaten dira. Erreklamazio horiek ordenantzaren 49.2. artikuluaren aplikazioak ekartzen ditu.

Erreklamazioa hauek sahestu nahiean eta ikusirik Gipuzkoako Urak enpresak emandako datuen arabera urteko 1.100 €ko galera suposatuko lukeela artikuluaren aldaketa planteatzen da.

3.- Ordenantzaren 49.2. artikuluak zera dio:

49.2. Finken sarreran, kontagailu banantzaileez gain, kontagailu orokorrak ere baleude, horiei jabekideen izenean eman beharko zaie alta. Jabekideen elkarteari kontagailu orokorrear erregistratuta dagoen kontsumoaren eta banantzaileen baturan erregistratutakoaren arteko aldea ordaintzea egokituko zaio, diferentzia horiek finkaren barruan egindako kontsumoen ondoriozkoak izango dira eta.

4.- Aldaketa egin ondoren, ordenantzaren 49. artikuluak honakoa jasoko du:

49. atala.

1. Ur-hornikuntza, ahal izanez gero, «kontagailu banantzaileen» arabera emango da, halakotzat, etxebizitzari edo lokalari dagokionez, harpidedun bakoitzaren kontsumoak ordenantza hauetako 44. atalean ezartzen den bezala neurtenak ulertuta.

2. Nolanahi ere, eraikin bakoitzean egon daitezkeen merkataritza-lokalek edo negoziokoek hornikuntza bereizia izan beharko dute.

Lokal horien kontagailuek eraikineko kontagailu orokoren baterian egon beharko dute. Eraikinarekiko hartune bereizia beharrezkoa duten lokal horietako kontsumo handien kasu berezian, kontagailua kanpoaldetik eskuragarria izango den kuxeta edo kaxa isolatu batean egongo da eta Zerbitzuak onartutako baldintza tekniko orokorrak bete beharko ditu.

2012IAKU0003

Betiere hartune bereizia beharko duten kontsumo handiko lokaltzat, eraikinaren kontsumo-erregimenean eragina duten edo hura aldatzen duten erabilerak aurreikusita dituztenak hartuko dira.

Zerbitzuak mantendu eta berrituko ditu kontagailuak, horien titularraren kargura, Udalak aurkakorik erabakitzten badu salbu. Arau gisa, 10 urteko gehieneko erabileraldia ezartzen da 15 mm-ko edo hortik beherako kontagailuetarako eta 7 urtekoa diametro handiagoko kontagailuetarako. Gehieneko erabileraldia igarota, Zerbitzuak kontagailuak ordezkatuko ditu.

IRIZPENA

Ondorioz, 2012ko martxoaren 19ko Hirigintza Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: IÑAKI AGIRREZABALAGA, ISIDRO FERNANDEZ, ANA ARRANZ, EMILIANO CABANAS.

Aurka: 0
Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren irizpean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenengi gehiengo simplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikulan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Uraren Zikloaren kudeaketari buruzko udal ordenantzaren aldaketa onartzea.

Zumaia, 2012ko martxoaren 19a.

UDAL ARKITEKTOA

Gorka Arregi Gaztañaga

Alkateak gaia aurkeztu du eta eztabaidan Alkateaz gain, Ana Arranzek parte hartu du batzarraldiaren grabaketan jasotakoa adieraziz

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **12 boto** (6 BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentziaok: **0 boto**

Erabakia: Uraren zikloaren kudeaketari buruzko udal ordenantzaren aldaketa onartu da.

**3.1.- Zumaiko BILDU eta ARALAR taldeek aurkeztutako proposamena:
“Zero-zabor” politikaruntz.**

**3.2.- Zumaiko EAJ-PNV taldeak aurkeztutako proposamena:
Hondakinak biltzeari dagokion proposamena.**

Alkateak proposamen bat zein bestea aldi berean eztabaideatzea proposatu du eta proposamen bakoitzari dagokion botazioa, berriz, bereiztea. Udal-taldeen bozeramaileek bi proposamenak eztabaidea bakarrean egitea onartu dute, eta jarraian, Alkateak BILDU taldeak eta ARALAR taldeak elkarrekin aurkeztu duten proposamenaren azalpena egin du. Ondoren hitza gainontzeko udal-taldeei eman die. Eztabaidean, Alkateaz gain, Ana Arranz, Emiliano Cabañas eta Aitor Leizak parte hartu dute batzarraldiaren grabaketan jaso dena adieraziz.

“ Udalon helburu nagusietako bat herritarren ongizatea zaintza da, eta Zumaiko Udalak, zerbitzu publikoa den aldetik, herritarron bizi kalitatea zaindu nahi du, zalantzarak gabe.

Hori horrela, eta hiri hondakinei lotzen bagatzaizkio, Urola Kostako Udal Elkartearen urteak daramatzagu gure hiri hondakinak bildu eta Urtetako zabortegira botatzen, eta ondorioz gure hondakinek eragiten dituzten kalteek gure bizilagunek pairatzen dituzte. Hori ez da zuzena.

Zumaiarrok arazo bat dugu hondakinekin. Urteak daramatzagu edukiontzien sistemarekin birziklatzeko asmotan, baina urratsak egin baditugu ere, sistema ahitura dago. Gaur egungo gure birziklatze maila ez da %35era iristen, eta %90 da birziklagarria. Denok birziklatzen dugula esaten dugu, baina datuak gordinak dira, hondakinen %70 baino gehiago zabortegietara botatzen ari gara. Eta errealtitatea are gordinagoa da: gaur egun papera, beira, ontziak eta organikoa nahastuta botatzen ari gara, balio handia duten eta lehengai diren hondakinak zabor kutsatzaile bihurtzen ari gara, eta hori onartezina da.

Arazoa dugu, baina konponbidea ere bai. Guk Gipuzkoa garbia nahi dugu, Zumaiko airea, mendiak eta errekak garbiak nahi ditugu. Horregatik, eta Zumaian gauzak ongi egiten dakigulako arazoari muinetik helduko diogu.

"Zumaiarrok hondakinen murrizketari, berrerabilzeari eta birziklatzeari ekingo diogu. Zumaian gauzak ongi egiten ditugulako, zero zabor politikarantz abiatuko gara, pauso txiki batekin emaitza hobeak lortuko ditugu.

Hori horrela, Udalbatzak hau onartzen du:

1.- Udal honek, hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatu egin behar direla aldarrikatzen da. Horrekin lotuta eta Udalaren eskuduntzaren baitan, hondakinen arazoa konpontze aldera, birziklapen maila altuenak lortu beharra dagoela uste du. Gaur egungo birziklapen maila (%35 inguru), handitu beharra dago.

2.- Gipuzkoako zenbait herrietan, atez ateko bilketa sistemaren bitartez, birziklapen mailak %80era irits daitezkeela ikusi da. Datu horiek ikusirik, Zumaiako Udalak, birziklapen maila horiek lortzea ahalbidetzen duen sistema ezarri beharra dagoela adierazten du, gure herriko berezitasunetara moldatuz.

3.- Helburua ahalik eta gehien birziklatzen dela aintzat harturik, herritarrei gaur egungo egoeraren informazioa helarazi beharra dago. Informazioaz gain, sistema berriak ekarriko dituen aldaketak herritarrekin adostu beharra dago.

Iñaki Agirrezabalaga Alkorta



ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **7 boto** (6 BILDU, 1 ARALAR)

Abstentzioak: **0 boto**

2012IAKU0003

Kontrako botoak: **5 boto** (4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Erabakia: BILDUk eta ARALARrek aurkeztutako proposamena “Zero zabor politikaruntz” onartu da.

3.2.- Zumaiako EAJ-PNV taldeak aurkeztutako proposamena: hondakinak biltzeari dagokion proposamen alternatiboa.

MOTIBATZEA

“ Azken egun hauetan hainbat komunikabidetan irakurri ahal izan dugun informazioaren harira, Zumaiako Udal Gobernuak, **Atez Atekoa** bezala ezagutzen dugun zabor bilketa sistema ezartzea erabakiko duela, behar den bezala informazioa eman gabe.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek, Mankomunitateekin egindako eztabaidea eta analisi luze baten ondorioz, Gipuzkoak sortutako **hiri-hondakinen kudeaketa integrala** xede hartzen duen Foru Araua onartu zuten, Gipuzkoako Hiri Hondakinren Kudeaketako Plan Integrala (**PIGRUG**). Hondakinren kudeaketari buruzko, Hondakinren gainekeo 2008/98 CEE Zuzentaraeu europar hierarkizatuak, dioenaren arabera, ingurugiroa, osasuna eta pertsonen ongiztea, erabat errespetatuz.

Hau honela, Foru Arauak, 2016.urtean, sortzen ditugun hiri hondakinen gutxieneko %60a, birziklatu, berrerabili eta konpostatu, eta zikloa hiri hondakinak balioztatuz itxi behar dugula jasotzen du, hau da, berrerabili edo konpostatu ezin diren hondakin horiek (*fracción resto*) edo errebus hori, erraustuz. Asmo handiko helburua, Europako herri aurreratuenen eta ingurumen eta osasun publikoarekin, konprometituenen mailakoa.

Azken urte hauetan, **2000 eta 2010** urteen artean, Gipuzkoan hiri hondakinen gaikako bilketa **%17,4** izatetik **%43,31** izatera pasa da. Datu hauek argi eta garbi adierazten dute XXI. mendean birziklatzearen aldeko apustua garbia dela baina **jendea kontzientziatuz eta heziz egin behar dela**, ez inposizio bidez eta orain artean egin dugun bideari jarraitzea dela Europaren zabor kudeaketaren eredu aurreratuenek erabiltzen duten bideari jarraitzea.

Urte hauetan, (gai honi dagokionez esaten dutenaren kontra, orain artean inoiz ez da halako apusturik egin), ezartzen joan diren neurri ezberdiniei esker izan da posible, edukiontzi ezberdinak erabiliz gaikako bilketa eginez, Garbiguneak,

2012IAKU0003

konpost plantak, ontziak bereizteko plantak, transferentzia-estazioak eraikiz, prebentzio, kontzientziazio kanpainak eginez, eta abar...

Azken urte hauetan, konposta egiteko, ahalik eta kalitate hobereneko, -egun sortzen dugun hiri hondakinen %25 eta etxeko zaborrontziko %40a suposatzen du- hondakin organikoak jasotzea helburu duen **5. edukiontzia**, ezartzen ari da pixkanaka.

Foru Arauak jasotzen dituen neurri hauek gehi beste batzuk erabiltzeak, hondakinen kudeaketan eta demokrazian aurreratuen dauden herrien neurrian jartzen lagunduko digute.

Neurri guzti hauek **eraginkortasunez, propozionaltasunez** eta **arrazionaltasun ekonomikoz** egindako ahalegin baten ondorio dira.

Honegatik, EAJ-PNVren zinegotzi taldea, **Alez ateko**a ezartzearen aurkakoa da, sistema neurrigabea delako herritarrei eskatzen zaien sakrifizioaren aurrean, zalantzak gabe askoz garestiagoa delako eta ez delako inolaz erakutsi eraginkorragoa denik. **Ez dugu zabor poltsarik nahi kale eta eskatzetan!**

Alez ateko sistema honek gure **herriaren garbitasunean eta itxuran** eragin ezkorra du eta “zaborren turismoa” deritzogun horri esker, inguruetaiko herrietara hondakin kopuru handiak eramatea eragingo du, bilketa sistema honek gizartearen sortzen duen arbuioaren eraginez.

Alez atekoa atzerakada da. Hondakinak biltzeari dagokionez, etorkizunak langileen lan baldintzak hobetzearen alde egitea eskatzen du, modernizazioa, automatizazioa eta eraginkortasunaren alde egitea, berriro zabor poltsak eskuz jasotzearen alde egitearen aurrean.

Zabor bilketa sistemak eztabaidea zabala azaleratu du giza eragile, alderdi politiko eta herritarren artean. Herritarrak, hondakinen bilketa eta trataeraren inguruaren sortzen ari den eztabaidearekiko, gero eta sentikortuago daude.

Eztabaidea batez ere bi zabor bilketa eredu ezberdinetan oinarritzen ari da, **edukiontziz gehiago jartzea** bata, eta **Alez ateko**a bestea.

Bestetik, ez diogu gardentasunik eta demokraziarik ikusten horrelako erabakiak komunikabideetan argitaratzeari, udaletxeari dagozkion organo eskudundun eta legezkoetan aldez aurretiko analisirik, eztabaidarik eta erabakirik, egon ez denean.

EAJk, ordea, uste du herritarrak direla jarraitu beharreko bidea aukeratu behar dutenak, eguneroko bizitzan zein etorkizunari begira zuzenean eragiten dien gaia izanik. Zabalduzko eztabaidea honetan, ezinbestekoa da parte hartze prozesu bat abiaraztea. Ondorioz, EAJk ondorengoa mozioa proposatzen du:

2012IAKU0003

MOZIOA

1. Zumaiko EAJ-PNV Udal Taldeak dei egiten dio Udal Gobernuari (BILDU+Aralar) **bosgarrengo edukiontzia**ren erabilera sustatu dezan, "Muritzu, Bererabili eta Birziklatu"-ren filosofian oinarritutako sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpaina bultzatu ondoren.
2. Zumaiko EAJ-PNV Udal Taldeak dei egiten dio Udal Gobernuari egungo zabor bilketa sistema atez-ateko bilketa sistema aldatu aurretik, **herri kontsultan** amaitu beharko lukeen partehartze prozesua zabaldu dezan.
3. Zumaiko EAJ-PNV Udal Taldeak konsulta horren **emaitza** berea egin eta herritarren hitza errespetatuko dueneko konpromisoa hartzen du.

Zumaia, 2012ko martxoaren 20a

EAJ-PNV udal taldeak

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **4 boto** (4 EAJ-PNV)

Abstentzioak: **1 boto** (1 PSE-PSOE)

Kontrako botoak: **7 boto** (6 BILDU, 1 ARALAR)

Erabakia: EAJ-PNV taldeak aurkeztutako proposamena "hondakinak biltzeari dagokiona" alegia, ez da onartu.

3.3.- Zumaiko BILDU taldeak aurkeztutako proposamena "Euskal presoen alde"

AZKEN OSTIRALAK - MOZIOA

2012IAKU0003

Zer edo zer entzuna izango duzue agian. Euskal presoen eskubideen alde lan egiteko ekimen berri bat jarri dugu abian: Zumaia! Zumaiako Herrira Bilgunea.

Bide berri eta itxaropentsu baterako atea ireki diren arren, ez dute etenik izan presoen eskubide-uraketek, eta horri aurre egiteko nahiz iheslari guztiak etxera itzultzearen alde lan egiteko prest dagoen zumaiar ororen bilgune izango da aurkeztu berri dugun ekimena. Presoen eskubideen alde lanean aritu den jendea, presoen senide eta lagunak, preso ohiak eta presoen eskubideen alde lan egiten hasteko gogoz dagoen jendea batu nahi ditu. Alegia, hainbat ikusmolde eta pentsamoldetako jendea elkartu, guztiak batera lan egiteko esparrua izan dadin Zumaira!

Garai berriak ditugu aurrean, eta horrek ekimen berriak martxan jartzea eskatzen du, aurrera egingo badugu. Espetxe politikak krudela izaten jarraitzen du preso nahiz senideentzat, eta horixe leuntzea dugu helburu, ahal dugun neurrian, guztiak bizi-baldintzak duintzeko.

Horrenbestez, lau lan-arlo nagusi izango ditu ekimen honek. Lehenengoa izango da egun indarrean jarraitzen duten salbuespen-neurriak indargabetzea; hau da, sakabanaketa-politikarekin amaitzea, gaixo diren presoak aske utz ditzaten eskatzea, bizi osorako zigorrak ezartzeko politika indargabetzea, eta zigor eta isolatzeekin amaitzea, besteak beste. Euskal preso politikoen kolektiboa Euskal Herrian elkartzea ere izango da lan-arloetako bat, beren eskubide guztiak bermatzeko, eta prozesu demokratikoan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Iheslariak ere gogoan izango ditugu, eta gure helburua izango da haien jazarpenarekin amaitzea, eta haien ere prozesu demokratikoan parte hartzeko aukera izan dezaten lan egitea.

Eta laugarren eta azken helburua da preso eta iheslari guztiak herrira ekartzea.

Hori guzia egiteko, ordea, zu ere behar zaitugu bidelagun. Eta horrexetarako gatozkizue oraingoan: zuen konpromisoa eskatzeko.

- 1.- Ekimen honekin bat egitea.
- 2.- Martxoan hilero bezala burutuko den Azken Ostiralerako Deialdia Udalak egitea. Horretarako eskura dituen komunikabide molde desberdinak erabiliz.
- 3.- Hilero burutuko diren Azken Ostiralean parte-hartze zuzena izatea eta horretarako deialdia egitea.

Alkateak BILDU taldeak aurkeztutako proposamena azaldu du eta, jarraian, hitza eman die gainontzeko udal-talde politikoei. Eztabaidan Alkateaz gain,

2012IAKU0003

Montse Arana eta Emiliano Cabañasek parte hartu dute grabaketan jaso dena adieraziz.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **7 boto** (6 BILDU, 1 ARALAR)

Abstentzioak: **0 boto**

Kontrako botoak: **5 boto** (4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Erabakia: BILDU taldeak aurkeztutako "euskal presoen eskubideen aldeko" proposamena onartu da.

3.4.- ZUMAIAKO BILDU TALDEAK "TIBETEKO HERRIAREN GIZA ESKUBIDEEN ETA ASKATASUNAREN ALDE" AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA.

TIBETEKO HERRIAREN GIZA ESKUBIDEEN ETA ASKATASUNAREN ALDEKO MOZIOA

1949an Txinako herri-errepublikaren indar armatuak Tibet herrian sartu ziren indarrez. Tibet, ordura arte eta historian zehar, herrialde independente zen.

Okupazio horren ondoren, krudeltasun ikaragarria etorri zen eta konta ezinak izan dira sarraskiak, torturak, kartzelaratzek eta herritarrek esterilizatzek. Sistematikoki indarrez praktikatu dira abortuak eta ondare kulturala, erlijiosoa eta ekologikoaren suntsipena lortu nahi izan da.

Tibeteko herriak gogor ekin dio erresistentziari eta tinko egin dio uko beste inoren mende egoteari; horren aurrean agintari txinatarrek "azken konponbide" bat asmatu eta eraman zuten aurrera 80. hamarkadan: "diluzio" bidezko benetako garbiketa etnikoa, herritar txinatarrek Tibeten bizitzen jarriz.

40. hamarkadan gehienez ehunka batzuk bakarrik ziren herritar txinatarrek eta gaur egun 7 milioi dira Txinako Han etniakoak. Eta herritar tibetarrak gutxiengoa dira euren herrian bertan.

Indar okupatzaileen helburua hauxe da: 2020. urtean Tibeten 40 milioi txinatar izatea. Tibeteko herria, bertako hizkuntza, kultura, erlijioa, ohiturak, tradizioak historiako liburuetara zokoratuta geratuko dira betiko.

Denbora bukatzen ari da. Oraindik astia dugu genozidio isolatua geldiarazteko. Txinako imperio diktatoriala geratu beharra dago, daraman heriotza- eta suntsitze-proiektua geldiarazi beharra dago.

2012IAKU0003

Sortu beharra dago, Tibetetik, bere askatasunetik eta bere askapenetik; 1.3 milioi gizon eta emakume txinatarren askatasunaren eta askapenaren lehenengo fruituak, haien giza eskubideen eta askatasunen errespetua irabaz dezaten Txinan.

HORREGATIK ESKATZEN DIEGU

Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari,

- Europako Legebiltzarrak joan den 2000ko uztailaren 6an eman zuen Ebazpenaren arauak jarrai ditzatela, eremu guzietan (politika, ekonomia, gizarte eta kultura mailan) herri tibetarraren autonomia osoa bermatuko duen akordioa ahalbidetuz; salbuespen bakarrak defentsako politika eta kanpo-politika izango lirateke.
- Hiru urteko epemugaren ondoren, erbestean dagoen Tibeteko Gobernua onar dadin Europako Legebiltzarrak egin duen proposamena onar dezatela.
- Tibet herrirako Europar Batasuneko ordezkari bereziaren izendapena babestuz 1998ko urtarrilaren 16ko eta 2002ko apirilaren 11ko Europako Legebiltzarrak eman zituen Ebazpenei berehala erantzun diezaietela.

Azkenik, 2012ko martxoaren 10an udaletxeko balkoian Tibeteko bandera jar dadila **proposatzen da**.

.....n, 2012koarenan.

Alkateak BILDU taldeak aurkeztutako proposamena azaldu du eta, jarraian, hitza eman die gainontzeko udal-talde politikoei. Eztabaidan Alkateaz gain, Montse Arana eta Emiliano Cabañasek parte hartu dute grabaketan jaso dena adieraziz.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **12 boto** (6 BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE, 1 ARALAR)

Abstentzioak: **0 boto**

Kontrako botoak: **0 boto**

Erabakia: BILDU taldeak aurkeztutako “Tibeteko herriaren giza-eskubideen eta askatasunaren aldeko” proposamena onartu da.

3.5.- ZUMAIAKO BILDU TALDEAK “GARONAKO ZENTRAL NUKLEARARI BURUZKO” PROPOSAMENA

2006. urtetik Garoñako zentral nuklearra Spainiar Estatuko zentralik zaharrena da. 1971. Urtean jarri zuten martxan eta 40 urteko balio-bizitzarako izan zen diseinatua, epe hori iazko martxoan gainditu zuelarik.

Bere jardueran behin eta berriz izan dituen matxurak zentralak segurtasun arazo larriak dituenaren froga dira, eta honi, korrosioaren ondorioz sortutako pitzadura arazoa gehitu behar zaio.

Zentrala lanean jarraitzeak onartezina den arriskua suposatzen du ingurugiroarentzat eta segurtasun eta osasun publikoarentzat, arriskuan jartzen baititu istripu kasuan eraginak sufrituko lituzkeen inguruan bizi diren milioika pertsonen bizitzak.

Arrisku guzti hauen jabe, Euskal Herriko, Arabako eta Gasteizko gizarteak, azken urteotan, behin eta berriz eta modu masiboan eskatu du zentralaren itxiera.

Instituzioetatik ere, Gobernu Autonomikoak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak, azken hamarkadan sarri azaldu dira gai honen inguruan, Estatu Spainiarreko Gobernuari zentralaren itxiera behin eta berriz eskatuz.

Frogatuta dago Garoñaren ustiapan baimenaren luzatzeak ez daukala justifikaziorik, izan ere, zentralaren ekarpen energetikoa honezkero bestelako sistema berriztagarriek betetzen baitute.

Hala ere, azken urteotan Spainiar Estatuko Gobernu ezberdinek zentralaren bizitza luzatzen tematu dira, ingurugiroa eta milioika pertsonen bizitzak arriskuan jarriz. Halako erabaki bat Spainiar Estatuko Gobernuak, zentralaren jabe diren, konpainia elektrikoen interes ekonomikoekiko mesede gisa baino ezin da ulertu.

Ekonoma ekologizatzea premiazkoa eta beharrezkoa da. Gure lurraldea jasangarria egiteak, Garoñaren jardueraren luzapenak suposatzen duen arrisku bizia ekiditera eraman behar gaitu. Era berean, energia iturri berriztagarrien aldeko apustu argi eta atzeraezina egiteaz gain, gaur egungo energia kontsumo maila birplanteatu behar dugu.

-Guzti hau kontutan izanda, honako adierazpena aurkezten dugu

Udalaren Osoko Bilkurak eztabaideatu eta onartua izan dadin:

- Udal honek Spainiar Estatuko Gobernuari eta bere Industria, Energia eta Turismo Ministerioari Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra berehala itxi dezaten dei egiten die.
- Udal honek Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra geldiaraztea xede duen edozein ekimen babesteko konpromisoa hartzen du.
- Udal honek zentral nuklearrek suposatzen duten arriskuen inguruko lanketa dibulgatzalea indartu eta sustatzeko konpromisoa hartzen du.

2012IAKU0003

- Udal honek “NUKLEARRIK EZ, GAROÑA ITXI ORAIN!” lema txertatuko du dokumentu ofizial eta Udalak sortzen duen bestelako publikazio guzietan.
- Kontsumoaren gutxitze eta energia iturri berriztagarrien erabilera oinarritutako energia aurrezpenaren aldeko apustu garbia egiten dugu. Energia sistema publiko batetik abiatuz.
- Honako Osoko Bilkuraren akordioa posta bidez igorriko zaie Espainiar Estatuko Gobernuko presidente den Mariano Rajoyri, Industria, Energia eta Turismo Ministro den Jose Manuel Soriari eta zentralaren %50aren jabe den Iberdrola konpainia elektrikoari.

(*) Gorri ageri den parrafoa, (onartu beharreko puntuatik laugarrena) Araban Garoñako zentraletik gertuen kokatuak dauden udaletarako soilik.

Alkateak proposamena azaldu du eta ondoren bozkatzeari ekin diote.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **12 boto** (6 BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE, 1 ARALAR)

Abstentzioak: **0 boto**

Kontrako botoak: **0 boto**

Erabakia: BILDU taldeak aurkeztutako “Garoñako Zentral Nuklearri buruzko” proposamena onartu da.

Eta eztabaidatzeko beste garirik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman du, gaueko bederatziak eta hamar minuto direnean, eta, nik neuk idazkariak horren guztiaren fede ematen dut.

Zumaiako Udaleko Idazkaria

Gorka Urquiza Aguirre

2012IAKU0003

ACTA DE LA SESION PLENARIA nº 52

En la villa de Zumaia, siendo las diecinueve horas del día veintidos de marzo de dos mil doce, se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial del Pleno del Ayuntamiento, al objeto de celebrar sesión extraordinaria con arreglo al orden del día previamente señalado y habiendo sido citadas en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la corporación:

Presidente: Sr. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta

Concejales:

Sr. Azis Alberdi Zaldunbide
Sra. Arritokieta Gonzalez Elosua
Sr. Eneko Agirre Maiora
Sra. Maitane Agirre Arrieta
Sr. Iñaki Ostolaza Esnal jn.
Sr. Montse Arana Perez
Sr. Juan Carlos Cendoya Aizpurua
Sra. Ana Arranz Irigoyen
Sr. Isidro Fernandez Echave
Sr. Emiliano Cabañas Gonzalez
Sr. Aitor Leiza Alberdi

No asisten: Sra. Edurne Egaña Manterola

Secretario: Gorka Urgoiti Agirre

Orden del día

1. NOMBRAMIENTO DE LOS REPRESENTANTES MUNICIPALES EN EL PATRONATO DE DEPORTES.

Alcalde: Ha recordado que a pesar de haberse constituido el Patronato de Deportes, queda aún pendiente el nombramiento de los representantes municipales. En representación de BILDU se designan a D. Iñaki Ostolaza y D. Eneko Agirre.

Montse Arana (EAJ-PNV): Ha denunciado que desde la aprobación en octubre de 2009 de los estatutos del Patronato, todavía no han recibido información alguna; que hasta ahora solo se han aprobado sus presupuestos en el que se preveía poner en marcha el patronato a partir de mayo. En opinión de su grupo, considerando que el Consejo Rector no se ha constituido, y que en la Comisión de Deportes no ha tratado el asunto, ha propuesto que se constituya íntegramente el Consejo Rector con el presidente y todos sus vocales, y es entonces cuando designarán a sus representantes. No entienden porque debe designarse a los concejales y, posteriormente, al resto de vocales.

Alcalde: Ha recordado que ya en la Junta de Portavoces se aclaró que al Pleno corresponde al nombramiento de los representantes municipales y a los clubs deportivos, por su parte, nombrar a sus representantes. De ahí, que se haya traído este asunto al pleno. Finalmente, si bien desde el año 2009 los estatutos están aprobados, el patronato no se ha puesto en marcha porque no se aprobaron los presupuestos.

Montse Arana (EAJ-PNV): Si el patronato de deportes no se ha constituido, consideran que habría que realizar el requerimiento al resto de grupos integrantes para que hagan el correspondiente nombramiento y, en su opinión, debería ser la Comisión de Deportes el encargado de realizar esa gestión. Y puesto que todo esto no se ha hecho hasta el momento, ha manifestado que no van a designar a sus representantes.

